

HIZKUNTZA ETA TALDE-NORTASUNA

1993ko udan, eta Donostian Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XII. Ikastaroen artean (Europako V. Ikastaroak zeritzenetan), *Hizkuntza eta talde-nortasuna* gaiaz hiru egunetako jardunaldiak eratu ziren. Uztailaren 22, 23 eta 24etan Miramar Jauregian, hemen bertotik eta atzerritik etorritako zenbait irakasleri eta jakituni entzuteko parada izan genuen. Orain, liburu honetan bildu ditugun hitzaldiak egokiera hartan emandakoak dira.

Udako Ikastaroetan gehienbat gertatu ohi denaren alderantziz, topaketa haiek ez ziren izan Euskal Herriko Unibertsitateak bere kabuz eta bakarrik antolaturiko zerbait. Aitzitik, kasu honetan Unibertsitatearekin batera Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ere eskurik izan zuen. Bien arteko ekimena izan zen, hortaz.

Ikastaro hau, juxtu beste baten ondo-ondotik zetorren, hau da, hizkuntzen aldeko mugimenduez egin zenaren ostean (1993ko uztailaren 19, 20 eta 21). Aipatutako honetan, Kanada, Katalunia eta Euskal Herriko historia eta gizarteetan bizi izandako taldeen eta herritarren jarrera, mentalitateak eta guztion aldakuntzak aztertu eta alderatu ziren. Pentsa litekeen, aldaera horietan talde-nortasunarekiko kontzientziaren eta burubide teoriko eta praktikoen munta susmatu ahal izan zen Ikastaro hartan, eta beraz, ondoko beste Ikastaro honetan hizkuntza eta talde-nortasunaren hau sentitutako egarrria asetzeraz etorri zen.

Ikastaroko egitarauari heltzeko, Europako, Ameriketako eta Euskal Herriko zenbait jakituni egin zitzaion dei, betiere etxeko ikusmoldeak atzerrietakoekin osabete zitezkeela pentsatuta. Euskal Herriko lau hizlari hartu zuen beren gain hizkuntzak euskal nortasunarekin izan (ez) ditzakeen zerikusi eta erlazioak arakatzea: Paulo Iztueta, Iñaki Larrañaga, M.^a Jose Azurmendi eta Benjamin Tejerina-k. Erbestetik, berriz, hiru irakasle etorri zitzaizkigun: R. Y. Bourhis (Montréal), P. H. Nelde (Brusela) eta H. Ó Múrchú (Dublin/Brusela). Oro har, ekarpen zabalak eskaini zituzten hizlariak, eta liburua bera da horren lekukorik onena.

Uztailaren 22ko goizean, irekiera ofizialaren ondoren, P. Iztueta EHuko Irakasleak (Hezkuntzaren Soziologia) hartu zuen hitza, *Euskal nortasunaren bila: Topaketa kritikoa* gaiarekin. Gure artean, mundu akademikoan bizirik dauden ideia eta azalpenak aurkezten dizkigu, euskal nazionalismora egin diren hurbilpenei bere ohar kritikoak ere erantsiz eta hizkuntzaren balioa ere definitu nahirik.

Egun berean, Richard Y. Bourhis-ek heldu zion bere lanari. Bourhis Irakaslea Québec/Montréal-eko Unibertsitatean Psikologi katedraduna da, eta berrikitan *International Journal of the Sociology of Language* aldizkari-ko «Frantses-Ingelesaren gaia Kanadan» deritzan zenbaki bereziko editore izan da. Goizeroko hiru emanaldi banatan *Hizkuntza eta identifikazio soziala*-ri heldu zion, lehendik landuz zetorren alor batean.

Hurrena, Iñaki Larrañaga *Siadeco*-ko ikertzaileak *Hizkuntz komunitatea eta nortasun nazionalaren pertzepzioa* izan zuen bere aztergai-tzat. Hiru ataletan banatu zuen gaia: hizkuntz komunitatearen elementu osagarriak, identitate-arazoak eta nortasun nazionala gauzatzeko hizkuntz komunitatearen garrantzia. Honela, gure artean arrunt bizia (izan) den gai bero bat aurkeztu zigun, Euskal Herriaren ezagumendu hurbil batetik.

Lehen eguneko azkeneko hizlaria Peter Hans Nelde izan zen. Bruselako Unibertsitate Katolikoko Irakasle hau EEko hizkuntz Erakundeetan ari da Elkarteko hizkuntz politikarako ikerlanak bideratzen. Horregatik, interes bikoitza du Nelde-ren azalpenak: ikerkuntzak dakarrena, eta aplikazio sozio-politikoari dagokiona. Hiru emanalditan zabaldu du bere irakasgaia: Europako egoera etnolinguistikoak bere baitan dituen gatazka-guneak, eleaniztasuna eta hizkuntz ukipenak, hizkuntz ukipenak eta hizkuntzarteko gatazkak.

Europarekiko ildo horretan jarraiki, Helen Ó Múrchú izan zen, hizkuntza gutxituak berezikiago gogoan izanik, Europako hizkuntzen arazoari alde politikoago batetik heldu ziona. Ó Múrchú Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarretik zetorren, berorren lehendakari izaki. Azken hamarkadan European bideratu den hizkuntza gutxituekiko Konbentzioa (*Agiria* tarteko, 1992), eta testuinguru berrituan Europako Komunitateak gutxiengoan hizkuntzei eskaini diezaiekeen etorkizunaz jardun zuen, bi saioalditan.

Hurrena, Maria-Jose Azurmendi EHuko Irakasleak heldu zion *Hizkuntza eta identitate etnosoziala Euskal Herrian* aztergaiari. Zenbait ikerlan enpirikoren arrastoen ematen zaigu azalpena (1985a aurrekoak, 1986-1991. eta-koak, eta azken urteetakoak). Iker-alor honetan Donostiako Psikologi eta Pedagogi Fakultatean egindako ikerlanen berriemate interesgarria aurkituko da orrialde horietan.

Beste ikertegi batetik, Leioako Zientzia Sozialen Fakultatetik, Benjamin Tejerina Irakasleak aurkeztu zuen bere analisisa, Euskal Herrian ikusi ahal izan diren «hizkuntza/nortasun nazionala»-rekiko aldaerak azalduz.

Europa-Ameriketatik eta Euskal Herritik bertatik bildutako ikaslan hauetan, izango du irakurleak non bazka, eta zeri gogoeman. Ikertzaileon azalpenak, uste dugunez, ez ziren bere garaian entzuleentzat alferrikakoak izan; orobat, espero dugu ez direla orain irakurlearentzat batere hutsal izango.

Joxe Azurmendi

Ikastaroko Zuzendaria

Donostia, 1996-11-27